



16-19 urte bitarteko
ikasleentzako jarduerak



5. URRATSA: AURREIRITZIEI AURRE EGITEA



Co-funded by
the European Union





5. urratsa: Aurreiritziei aurre egitea



Xedea

Orokortzeek gizabanakoen errealitate bakarrak ilundu eta diskriminazioa eragin dezaketelaren inguruan kontzientzia sortu.



Helburuak

Ikasleek beren orokortasunak eta aurreiritziak ezagutuko dituzte eta besteenak ere bai.

Ikasleek aurreiritziei eta diskriminazioei aurre egiteko estrategiak identifikatuko dituzte.

Ikasleek ulertuko dute beren aurreiritziez jabetzea garrantzitsua dela, giza harreman orekatuak sustatzeko.



Gako-hitzak eta edukia

Orokortasunak, estereotipoak, aurreiritziak eta diskriminazioak identifikatzea horiei aurre egiteko estrategiekin batera, funtsezkoak da bizikidetzaren orekatua sustatzeko.



Metodologia eta Iraupena

Ariketak orokortasunak eta aurreiritziak antzeman eta horiei aurre egin.

45-50 minutu iraupena



Co-funded by
the European Union

66






5. urratsa: Aurreiritziei aurre egitea



**Agian, uste duguna baino gehiago
dugu komunean**



**Eskatu ikasleei 3 minutuko bideo
bat ikusteko**



TV 2 | All That We Share



TV 2 Play
69.5K subscribers

Subscribe

66K



Share

Save



Co-funded by
the European Union

67





5. urratsa: Aurreiritziei aurre egitea

eta googoeta egiteko pelikulan ikusten denaz hurrengo galderei erantzun (Ikasleek galderak aurki ditzakete → 5. Urratsa – Ikasleen lan-orria)



Inoiz sentitu al naiz "etiketatua" (nor bere nortasuna edo potentziala mugatzeko moduan kategorizatuta) elkarren arteko antzik ez genuela uste zuen norbaitengatik? Nola erreakzionatu dut?



"Etiketatu" al ditut inoiz beste batzuk, erabat desberdinak ginela uste izanda? Zein izan ziren nire sentimenduak eta erreakzioak?



Konturatu al nintzen nik "etiketatutako" norbait uste baino gehiago elkarren arteko antza zeukala nirekin? Nola ohartu naiz honetaz?



Co-funded by
the European Union

68





5. urratsa: Aurreiritziei aurre egitea

2

Eskatu ikasleei beren esperientziak hiruko taldetan partekatzeko.



3

Laburki azaldu zeri buruzkoa den honako hau:

Sarritan jendea taldeka sailkatzera jotzen dugu, "gu" eta "haiek" oso ezberdinak garelakoan, eta ezer gutxi edo ezerk ez gaituela lotzen pentsatuz. Bakarrik norbait hobeto ezagutu eta elkar topo egiten dugunean deskubritzen dugu zerk lotzen gaituen eta zer dugun komunean.



Co-funded by
the European Union

69





Stage 5: Dealing with prejudices



Orokortasunak eta aurreiritziak: Nola posible dugu aurre egitea?

Istorio bakarraren arriskua.

1. Azaldu labur-labur "Istorio bakar baten arriskua" bideoaren testuingura.

Chimamanda Adichie, Nigeriako idazlea, ikasle gisa joan zen AEBetara, eta ez errefuxiatu gisa, baina irudi edo istorio finko bati ("istorio bakarra") lotuta zegoela sentitu behar izan zuen. Hitzaldi batean azaltzen du nola bizi izan zuen etiketatze eta murrizte hori onarpenaren ukatze gisa, bere aurkako boterearen erabilpen gisa, baita bere duintasunaren lapurreta gisa ere.



Co-funded by
the European Union

70






Stage 5: Dealing with prejudices

Istorio bakarraren arriskua.

2. Eskatu ikasleei bideoa ikusteko eta gaiari buruz hausnartzeko, galdera hauek eginez (Ikasleek honako galdera hauek aurki ditzakete → 5. urratsa - Ikasleen lan-orria):



Ba al dut esperientziarik besteek "istorio bakar" batean oinarrituta definitzen nautela? Hala bada, zein istoriotara mugatu naute? Nola bizi izan dut hori eta nola erantzun dut?

Besteekiko elkarrekintzei buruz hausnartzen dudanean, beste norbait istorio bakarrera mugatu al dut? Horrela bada, nola zuzenduko dut?

Zerk laguntzen dit burua zabalik edukitzen eta besteei buruzko hainbat istorio onartzen? Zer egin dezakegu estereotipoek diskriminazioa eragin ez dezaten?



Co-funded by
the European Union

71





5. urratsa: Aurreiritziei aurre egitea

Istorio bakarraren arriskua.

3. Eskatu ikasleei hiruko taldeka lehenengo bi galderen beren esperientziak partekatzeko. Hirugarren galderari buruzko erantzunak klase osoarekin partekatzeko eskatu. (Norbaitek 3. galderari buruzko erantzun guztiak idatz ditzake, etapa honekin zerikusia duen ekintza-erronkaren bat egiteko asmoa baduzu).

4. Azaldu labur-labur zeri buruz den honako hau:
Sarritan, istorio bakar batean sailkatzen dugu jendea, talde jakin bateko kide edo ezaugarri jakin batzuetan oinarriturik, kontu handirik egin gabe ea istorio hori egiazkoa den edo zer narrazio parteka ditzakeen bere buruari buruz. Zoritxarrez, errefuxiatuek maiz ikusten dute jende gutxik duela bere istorioekiko interesa, eta horrek elkarren arteko topaketa esanguratsuak, trukeak eta elkar aberasteak eragozten ditu.



Co-funded by
the European Union

72





5. urratsa: Aurreiritziei aurre egitea



Lagungarria izan daiteke erlazionatutako osagai kognitiboak, emozionalak eta portaerakoak azaltzea. Estereotipoak sinesmenetan oinarritutako orokortzeak dira (guk uste duguna), eta aurreiritziak, berriz, orokortze horiek beldurra, ondoezak edo gorrotoa bezalako sentimendu deserosoak ekartzen dituztenean sortzen dira. Diskriminazioa gertatzen da faktore horiek elkartzen direnean eta norbaitekin modu negatiboan jokatzera garamatzatenean. Horregatik, funtsezkoa da gure estereotipoak eta aurreiritziak ohartaraztea diskriminazioa saihesteko.



Zure **Togheter for Change** erakunde nazional laguntzaileak, bertatik bertara ezagutuko du gai hau, eta aholku baliotsuak eman ditzake horri eraginkortasunez heltzeko. Arrazakeriaren aurkako ekintzaileak ere ezagutuko dituzte. Gainera, material osagarriak ekar ditzakete gaia sakonago aztertu nahi baduzu.




Co-funded by
the European Union

73





5. urratsa: Aurreiritziei aurre egitea



Hausnarketa ariketa praktikoa

Hausnarketa ariketa (Hausnarketa Ariketa – ikasleek galdera hauek aurki ditzakete → 5. urratsa – Ikasleen lan-orria)

Idatzi hiru baieztapen zeure buruari buruz, uko egingo zeniokeenak ez zaituztelako zehatz-mehatz deskribatzen edo zure indibidualtasuna errespetatzen ez dutelako



Laburpena eta transizioa

Eskatu ikasleei esaldi batzuetan partekatzeko urrats honetan ikasitakoa. Hainbat ikaslek ekarpenak egin ondoren, laburbildu beren ikuspuntuak zuen hitzetan (goiko ikasgaiaren helburuak aipatuz).

Ondoren, hurrengo urratsa aurkeztu, esanez: "Hurrengo saioan, ekintzara pasako gara!"



Co-funded by
the European Union

74

